

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko otsailak 13 III. urtea

Usurbil, 36. Zenbakia



**Tunel beltzari irteera
aurkitu nahian**

Txerrimunik ordainetan



Julen Arteaga Iriondo. Otsailaren 15ean 11 urte betetzera doan mutiko jator horri, zorionak! Etxekoen partez.



Alaitz Kamino, Zorionak "titi"! Berandu baina seguru. Zure eguna eta (Santa Ageda, otsailak 5) ondo pasa duzulakoan, muxu handi bat zure lagunen partez.

Zorionak **Jokin Errasti!** Zure 22. urtebetetzean, otsailaren 1ean, gutxi gastatu zenuenez, gogoratu txotx garaian gaudela. Muxu handi bat zure ingurukoen partez



Zorionak amona **Elena!** Zure familia eta inguruko lagunen (apopiloen) partez. Muxu handi bat. 1929-2-05.



Otsailaren 17an bost urte beteko dira **Garazi Basurto Korta** jaio zenetik. Gutxi falta da Garazi! Zuk, merienda prestatu eta familia osoak ospatuko dugu zurekin. Zorionak, zorionak eta zorionak!



Aupa rubia! Otsailaren 6an 47 urte bete ondoren ondo ezta? Zorionak **Itziar Aizpurua Aizpuru** eta urte askotarako!

Nerea Usandizga, aurten ere ez duzu zure urtemuga ospatuko, baina horrek ez du esan nahi 28an zure jubilaria ez dugunik ukatuko. Zorion berezi bat bisesta izateagatik. 22 urte ez, 5 1/2 dituzu!



Otsailaren 15ean bigarren bikoa jasoko dun. A zer pixua! Argazkian bezain lirain mantentzen ba haiz, ez hago gaizki. Zorionak eta 22 muxu, **Iraiti De Miguel.** Zure kuadrila



Otsailaren 24ean mende erdia gehi bat beteko dituzu. Erdi hau bezalakoa izan dadila hurrengo ere. Zorionak, **Ramon Udabe,** zure familiaren partetik.




Lur Errekondo, "Buxtangorriko" bihurriari otsailaren 16an 3 urte egiten dituelako. Zorionak! Uxoa, Maider eta Oihanen partetik.

Otsailaren 26an, 24 urte beteko dituk. Hi ere aurrera hoa! Eta ez ezak pentsa gonbidatetik libratuko haizenik. Zorionak **Garikoitz Agorreta!** Hire lagunak.



Hi, **Josu Errekondo!** Berriz ere badatorrela otsailaren 18a. Bere "motzean" bizitza ere luzatzen ari dukela...Horrelaxe, urte askotarako...



Jaiotzak

Kerman Bruño Arrieta
1998-01-17
Aginaga

Tamara Rodriguez Palacios
1998-01-27
Olarriondo

Ane Gonzalez Mendizabal
1998-01-30
Kaleberri

Hildakoak

1998-01-29
Dionisio Bengoetxea Esnal
75 urte
Aginaga

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua! Kultur Elkartea. Kale Nagusia, 37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa) Tlf. eta faxa (943) 36 03 21. e-mail: mando@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Garikoitz Udabe.

Kolaboratzaileak: Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Nieves Aranburu, Luis Aranalde, Zalao Arnaz, Maribi Arrospide, Agurtzane Solabarrieta, Joseba Pellejero, Joxe Aginaga, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz, Agustín Esnaola, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga eta Begoña Arriaga. **Administrazioa:** Arantxa Usaralde, Aitor Pikabea eta Nerea Kamino. **Erredakzio Kontseilua:** Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua:

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez. **Dokumentazioa:** Idoia Agirre. **Informatika:** Pili Lizaso.

Banaketa: Mertxe Jimenez, Txelo Vidal eta Iker Muguruza.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola.

Tirada: 2.200 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Industrialdea 1 - 2, 20.160 Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Troiako tunela.

Zaldierrekak Orian
ibaieratzeko pasatzen
duen errepede azpiko
tunela.



Eskiaz irristan

Iñaki Rekondo

Mendizalea

Negutegi efektua gero eta nabarmenagoa dugun garai honetan eta haren eraginez ez badirudi ere, neguan sartuta gaudela esan genezake, mendira joatea gustuko dugunontzat, behintzat, garai ederra. Gehien bat asteburuetan pirineoetara joaten garen mendizale amorratu eta ez hainbestekoak, udaratik honuntz zerbait aldatzen ari dela nabaritzen dugu. Nahi baino gutxiago, baina mendiak elurrez estali dira paisaia erabat aldatuz eta gu, nola ez, oinez edo eskiz zuritaz hor-taz gozatzeko paisaia horrekin bat egiteko irrikitan.

Beste urtarroetan, eguzki gozoren berotasunak lagunduta, pirinio zabal horretan, makina bat mendizale, txirindulari, kañonista, hegalaria, domingero eta abarrek egiten dugu topo. Zabalatasun horri esker moldatzen da mendi-katea gure eraso gero eta gogorragoak irensteko. Baina hotzak hasten direnean, jende andana guzti horren zati haundi bat horretarako prestatuta dauden eremu zehatzetara eskiatzera joaten gara. Mendizale batzuek bakarrik alde egiten dute masifikazio horretatik, eskiz edo oinez, baina eremu hauetatik at.

Orokorrean hiru eratako eski jarduerak aurki genitzake: jeitsierakoa (alpinoa), iraupenekoa eta trabesiakoa. Lehenengoa da ahalegin gutxienean eskatzen duena eta arrakastatsuen gure

artean, Andatza K.K.E-k antolatutako irteerarik arrakastatsuen urtero. Moda bat bihurtu dela esan genezake. Orain arte aberatsentzat egina zegoena ia edonork praktika dezake gaur egun, diru eskuratze erraztasunagatik edo. Izan ere, ez da batere kirol merkea, baina modak bere hatzaparretan harrapatuta gaurka. azken puntako ekipoa, ahal den jantzirik dotoreena, kolorezko betaurrekoak, ezpain-arkatz fosforitoak..., dena urtean dozenaren bat egunetan erabiltzeko. Eta forfait gero eta garestiagoak ahaztu gabe, 3000 pezetatik gora eguneko. Gaur egun bizi dugun gizarte kontsumistaren adibide adierazgarrienetakoa dela esango nuke.

Mendiari lotuta dagoenez, eragiten duen kaltea izugarria da. Moda hau indartzen doan neurrian, eski estazioen kopurua eta tamaina haunditzen doa. Ondorioz, mendiko paisaiak eta artza, ugatza, eper-zuria... eta landare alpinoen gisako biztanle ahulek, honi lotuta bultzatzen diren azpiegitura itzelen inpaktu sakonak jasan behar dituzte.

Mendia maite dugunok birritan zera pentsatu beharko genuke: eski estazioetan gure trebeziak erakusten ari garenean, ez ote goazen benetako mendizale-tasunetik irristan. Ostirala iristen denean moda mamu honek bere egingo gaituela badakigun arren.



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

386
bazkide ditu Noaua!k.
Zu ere egin zaitetz
bazkide



EAJ-PNVK H.B-REN AUREKONTUEI EGINDA-KO PROPOSAMENAK

Gure herriko zenbait beharren aurrean, herritar batzuen iritzia jasoaz, haur txikienezako jolaserako "aterpe" bat prestatzea egokitzat jotzen genuen eta horretarako Bustinzulon udalak hartuko duen lokala oso egokitzat jotzen genuen. H.Bren aldetik ezezko borobila jaso genuen.

Udaleko aurrekontuak, dakizuen bezala, oso potoloak dira, aurtengoa, adibidez, 667.576.338 pezetakoa da. EAJ-PNVk behin eta berriz Auditoria bat eskatu du, dirutza haundi hau egoki erabilia izan den ala ez jakiteko. Aurten berriz ere ezezkoa jaso dugu. Zeren beldur dira?

Denok dakigun bezala, Usurbilgo kanpandorreko erlojuak herritar guztiei eskaintzen die bere zerbitzua, beraz, ego-

kia litzateke udala bere konponketaz arduratzea. Hemen ere ezezkoa jaso dugu.

Beraz, arrazoi hauek eta beste ugariengatik ezetz esan diegu aurtengo aurrekontuei.

EAJ-PNV Usurbilgo Uri Buru Batzarra

HILETA EZTABAIDAGARRI HURA

Jende askok galdetu dit Noaua!n **Jabier Pikabeak** idatzitako eskutitza irakurri ondoren, ea noiz egin dudan hileta eztabaidagarri hura, hau da, hildakoa euskaldun petoa eta elizkizuna erdia euskaraz eta erdia gaztelaniaz. Nik ez nuen zuzendu hileta meza hura, kanpoko apaiz batek baizik. Euskararen erabilpenaz ez dut kexa haundirik jaso Aginagako kristau elkartetik.

Luis Aranalde.
Aginagako apaiza.

OKERRAK ZUZENDUZ

35. alean zenbait akats egin genituen, nabarmenak gainera:

-Azalean 34. alea dela agertzen da eta hori ez da horrela. Urtarrilak 30ean ateratako alea Noaua!ren 35. zenbakia da, ondoren barnean datorenen moduan.

-**Joxe Antonio Altuna**, zorion agurretan, urtebete gaztetu dugu. Otsailaren 7an ez zituen 55 urte egin, 56 baizik.

-Atxega jauregiaren alokairuari dagokionez, alokatzen duenak ez du 100 milioiko errenta ordaindu beharko.

-34. aleko lehiaketaren irabazlea **Jon Arruti** zela jarri genuen eta halaxe da, baina ez genuen lehiaketaren erantzunik eman. Karretila antzeko hura Andatza mendian dago, gurutzetik buzoira bidean, baina gurutzetik oso gertu.

Erredakzio kontseilua



Ikusten al duzu zein "kategoriko" itxura duen gure aleen bildumak? Oraindik ere ez duzula zeurea egin? Ba, mugitu atzekaldea, eta eskatu falta zaizkizun aleak. Urte eta erdian Usurbilen gertatutako guztia etxean izan dezakezu. A ze altxorra!!!

Telesforo Ardoak



Zure maiztasun egoerak
Kale Nagusia, 25
Tel: 84 12 20




TABERNA

7 fentetan inekitzen dugu

Goizgoizetik gosariak

Irakurkalea, 12
Tel: 86 02 17



Buru-zarriaren aurreko
le apurteko

Barakaldo, 3

Tel: 37 61 83



JORGE AIZPURUA ZEBERIO

“Ai panadero etorri hadi...” bai, Jorge “panadero” da bera. 76 urte ditu eta txiki-txikitatik izan du ogia lagun. Orain ere ezin da ogirik gabe bizi.



Gogoratzen al zara okindegian lanean noiz hasi zinen?

Gogoratuko ez naiz, ba! Ni jaiotzerako etxean okindegia zegoen. Hala ere, 14 urterekin hasi nintzen ogia egiten. Eskolarako tamainako gogoa nuen, ez joateagatik edozer gauza egiteko prest nengoen. Okindegitza ofizio ona ez izan arren gustora ibiltzen nintzen.

Lan asko egin beharko zen garai hartan.

Orain bezalako makinariarik ez zegoen garai hartan. Batzutan lehenago, bestetan berandua-go, niri deika eta deika ibiltzen ziren eta esnatzen nintzenean joan eta han aritzen ginen. Ogia egin aurretik lan haundia egiten zen, egurra ekarri, hirina deskargatu...

Orain berriz...

Orain dena erabat aldatua dago. Ogia nola egiten duten begira jartzen naiz eta ogia egiten sekula ikusi ez eta kalean paseatzen dihoan adina ulertzen dut: ezer gutxi. Bateko lebadura dela, bestetik bestea, hurrengo... guk legabia erabiltzen genuen. Labeak ere bakarrik egiten du lana, lehen, ordea...

Soldaduskan ere okina izan zinen?

Soldaduskan hiru urte eta erdi egin nituen eta han ere “panaderitzan” aritu behar izan nuen.

Baina orain ogi partitzen ibiltzen zara ezta?

Soldaduskan egon ondoren ogi banatzen hasi nintzen. Zaldiekin banatzen zuteneko garai hura ezagutu nuen, baina orain dela 60 urte inguru ekarri zen lehenengo kotxea gure etxera. 18 urterekin atera nuen kotxeko karneta, baina ogia banatzen ez nintzen hasi 25 urte izan arte. Orio aldera joaten ginen beti, aginagako base-

rriak, Oriokoak. Orain, aldiz, gauzak asko aldatu dira.

Zer dela eta?

Lehen astean bitan hartzen zen ogia, ogi haundiak izaten ziren. Orain egunean egunekoa ere az da nahi izaten, goizean goizekoa eta arratsaldean arratsaldekoa. Jan ere gutxi egiten da gainera. Gaur egun nire etxean jaten dena nik gosaltzerakoan jaten nuen lehen.

Lehen esan duzu soldaduskan hiru urte egin zenituela. Non egon zinen denbora horretan?

Afrikan bi urte egin nituen. Bartzelonako kuartel batera joatea egokitu zitzaigula esan ziguten baina guk ez Bartzelonan eta ezta beste lekuetan ere ez genuen kuartelik ikusi, destakamentuetan, kanpamentuetan egoten ginen.

Eta Afrikan zer moduz?

Tetuanen egon nintzen denbora askoan, baina Ceutan, Tanger-en, bueltaka hortxe ibiltzen ginen, leku batetik bestera. Gu soldaduskan geundenean II. gerrate mundiala zegoen. Afrikako leku batetik, Urdaigatik Usurbil ikusiko bagenu bezalaxe ikusten genuen Gibraltargo harkaitza. Gau batean alemanak bonbardeatzaera joan ziren, baina ez zen bat bera ere gaineratu, “antiaereo” indartsuak zituzten nonbait ingelesek.

Dantzari fina omen zinen gaztetan.

10 urterekin dantza taldean hasi eta sei urtez hor ibili ginen dantzan herriko auzo guztietan bueltaka. Donostian ere dantzatu genuen, Atotxan hain zuzen ere. Orduan ikusi nuen soktira lehiaketa bat lehen aldiz. Usurbilgoak bigarren gelditu zirela gogoratzen naiz.



11 minutu menu berezia otsailaren 21 ean

ARRIETAN

Sandin zaha-mak olibotan

Bakar-jao tortila

200 kg-ko liggeldoko txelkoma 16 ordutan onnea

Gazta menbriljoa eta intxaumak

Tel. 36 20 49

Zubretan

2 200 pta

TXOKOALDE

Olatz Goenaga



Lan eta lan uholdeak ahaztu nahian

Txokoalde eta obrak, obrak eta Txokoalde. Biak azken hilabete hauetan ondo loturik daude. Uholdeak izan zirenetik ia zortzi hilabete pasa dira eta egun hartan izandako hondamendiak konpontzen dihardute oraindik. Erreka agerian pasatzeko lanak kaxkoraino iritsi dira. Errekari bide zabal eta haundia egin diote, etorkizunean uholdeekin arazorik ez izateko. Momentu honetan, behean ari dira lanean, erreka bidea egiteko azken zatia besterik ez baita falta.

Uholdeen obrak ez baina beste bi lan ere aurrera doaz Txokoalde auzoan. Auzoko

frontoia berritzen ari dira. Estalki zaharra kendu zioten lehendabizi, alboetako sostenguak jarri ondoren eta orain estalki berria ere jarri berria diote. Bertan pelotan jokatzeko aukera izango da laister, garai bateko apustu eta



hamaiketako bikain haiek berriz egiteko parada ederra. Eta noski, egun pasa egin nahi duenarentzat ere txoko polita dugu Txokoalde.

Aparkatzeko arazoak egon daitezkeela? Horretarako egingo dute aparkaleku berria. Proiektuaren berri txoko honetan eman izan dugu lehen ere, lurrak mugitzen ere hasi ziren baina azken hilabeteetan ez dute ezer egin. Dirudienez udalak arazotxo batzuk ditu, aparkalekua ibaiaren ondoan baitago. Hala ere, arazo hauek konpontzean laister izango dugu aparkalekua.

KALEBERRI

Ines Kamino



Balkoirik gabe gelditu ginen ia

Sustotarako ere ez. Orain dela aste batzuk ezusteko galanta hartu genuen Aritzeta Teko bizilagunek.

Gu lasai-lasai geunden etxean, baina halako batean hots ikaragarria entzun genuen. "Zer gertatu da?" Zera, beira jasotzeko kamioi hoietako batek, bihurgunea ematera koan etxebizitzako balkoia ukitu eta honen zati bat bota zuen. Ez zuen kamioiak berak balkoia jo, honek atzean zerman grua antzekoak baizik.

Orain kalteak konpontzen hasiak dira eta laister utziko dute lehen zegoen moduan. Hurrengoan ere kontuz ibili beharko dugu kamioi hau

pasatzen denean, agian zati haundiagoa eramango du eta.

Bestalde, Kaleberriko kaleetako hormak, aspaldiko partez zuri-zuri ikusi nituen lehen-goan. hormetan itsatsitako



kartelak eta antzekoak kentzen jo eta su aritu dira udaleko langileak. Leku batzuek, kartelik gabe ikusita ezezagunak egiten zaizkigu, kartelez beteta ikusten ohitu ondoren...

Azkenik, azken orduko kontuak ere baditut. Inauteriak iritsi dira eta urteroko festa ere bai. Aurten gaia musika dela jakingo duzue eta Drindots taldearekin dantzaldia egongo dela ere bai. Hala ere, martxoan, frontoian beste ekitaldi bat ere iragarrita badago. Su Ta Gar eta Kashbad taldeek kontzertua eskainiko omen dute martxoaren erdi aldera. Zurrumuruak besterik ez dira.

ATXEGALDE

Amagoia Mujika



Inauteriak, ze arraio!

Inauteriak, inauteriak... zer jantzi behar dut, nondik aterako ditut erropak? Betiko kontua, azkenengo momentu arte ezer ere ez. Ez da beste batzuen kasua. Atxegaldeko emakume moztortuak zerbait prestatzen hasiak izango dira, ziur egon.

Guk, ordea, ezin. Otsaileko azterketetan murgilduta egon gara azken hilabete honetan eta orain ikasleak garela ahaztu eta ondo pasatzeko garaia iritsi da, zerbaiterako izango dira inauteriak ezta?

Azterketak prestatzen ari nintzenez, Noaua!n kronika giteko unetxo bat hartu dut..

Izan ere, Atxegaldeko urbanizazio berria egiten noiz hasiko zain gaudenean urbanizazio zaharrea arazotxo batzuk badaude. Ariztitxo kalean, adibidez, espaloia-aren zati bat puskatuta dago. Mahaspildegia alderantz hartuta, eskuin aldetik beherantz zoazela, oso egoera txarrean dago espaloia-aren zati bat. Udaleko langileek piboteak jarri dituztenez, urbanizazioa berria egiten arte itxoin beharko dugu.

Bestalde, Mahaspildegia aurreko aparkalekuaren bestaldean dagoen zelaiaren egoera tamalgarria da, basura poltsak, zikinkeria...denetik aurkituko duzu han.



KALEZAR

Pedro Mari Matxain



Azeriak Kalezarko kaleetan

Lata ematera hemen nator berriz ere. Azken hilabete hauetan beste zeregin batzuk izan ditut, ez nolana hikoak gainera, eta berriz ere zuei kontu zahar aspergarriren bat

kontatzeko esperantzan nator oraingoan.

Azeri kontuak berriz ere. Izan ere, azeri zaharren bat goseak akabatzen dabil inguru hauetan. Goi alde horretan aspertuta behera jeisten da, usainean hau ere, jaki gozoren bat non ehizatu-ko. Espabilatua animalia! Gauean jeitsi eta inork ikusten ez duenean zapla! oilaskoren bat aurrena, oilasko batzuk

gero eta arkumeen atzetik, susa dagoen animalia bezala, hurrena.

Gauean, iluntasuna lagun duela, etxe tartera jeitsi eta txakurren pareko animalien moduan guk utzitako zaborrak arakatzen ditu. Lehen herrira jeisteko beldur izaten ziren, orain, ordea, uxatu zaizkie behur haiek. Zaborraren ondoren oilatokia izan ohi da hurrengo pausua, handik eta hemendik harrapatu eta jaten saiatuko da.

Kontuz ibiltzea duela! Lehen ere Pellejero eta Ringok bat harrapatu zuten eta orain ere gogo biziz daude.



SANTUENEA

Uholdeen arrastoan

Agustin Esnaola



Iazko ekainaren 1ean euri jasa handia izan zen, bai Usurbilen eta baita Gipuzkoan ere. Baina, nire lehendabiziko artikulua honek ez du ekainean izan zen euri jasa handi hura gogoratu nahi, haren ondorioz gure auzoan konpondu ez diren gauzen salaketa egin baizik.

Auzoaren historian, bertakoak kontatutakoari esker, auzo honetan betidanik ur ederra izan da. Lau bat iturri zeuden. Denetan edateko ur ederra ateratzen zen, batean erropak garbitzen zituzten eta bestean neguan ur epela eta udaran freskoa ateratzen zen ura.

Etxeak eraikitzen hasi zirenean iturri haietatik hiru kanalizatu eta estali egin zituzten. Orain, gaurko arauak, ez lukete iturri haiek estaltzen utziko.

Geratzen den iturria, Altzondoko iturria da. Iturri honen ura gutxi batzuek aprobetxatu izan due, nahikoa ezkutuan baitago. Baina, udalak, hori jakinik, ura aprobetxatzeko auzoan bi iturri publiko jarri zituen, horrela jende gehiagok ur eder hori edateko aukera izan du. Tratatu gabekoa izan arren jendeak gustokoa zuen.

Ekainean izandako euri jasaren ondoren iturriak urik gabe gelditu ziren. Auzokide batzu-



ek udalean eskaerak sartu omen dituzte, baina alferrik. Auzokide batzuek, zutabe honetan, iturria konpontzeko eskatzeko esan didate, auzokideek eta kronika hau irakurriko dutenek ur hori edateko aukera izan dezaten.

URDAIAGA

Leizekaldeko parkearekin jolasean

Leire Atxega



Kaleberrin parkea egin behar dutela irakurri berri dut **Noaia!**n. Baldintzak irakurtzen hasi eta belar-parkea ez dela segituan ohartu naiz. Orain dagoen berdegunetik



gutxi izango du hark, bolatokiak, aparkaleku eta estalpeari emango baitiete garrantzia.

Urdaiagan, ez dugu horrelako arazorik. Leizekaldeko parke lerdena da honen adierazgarri. Non aurkituko duzu eguna pasatzeko leku hau baino hobetik? Ez da lan erraza izango. Umeentzako jolaslekua, zuhaitz azpiko itzalpeak, eguzkia har-

tzeko zelai berdeak... denetik du Urdaiagako parke honek. Hala ere, badakigu parke handiago baten lehen zatia besterik ez dela. Etorkezinean parke handiagoa egiteko asmoa du udalak.

Noiz ez dakigu, baina Leizekalde parkea handiagoa eta politagoa izango da. Udarako egunetan eta neguko egun eguzkitsuetan egun pasa joateko, Urdaiagako parkea baino leku hobek gutxi izango dira. Orain, gainera, komun publikoa jartzekotan ez dira ba? Askoz hobek. Guztien artean txukunago mantenduko dugu parkea, behar beharrezkoa da eta!

AGINAGA

Luis Aranalde



Aginagako Kirol Elkarteak, lagunartea

1996ko otsailaren 25ean egin nuen sarrera Aginagako erretore moduan; elizkizuna bukatu ondoren, herriko kirol elkartera bueltatxo bat egiteko asmoa hartu genuen **Jabier Pikabea** eta biok.

Hirukote bat ikusi nuen hamaitakoa bukatzen. Norbaitek esan zien ni nintzela erretore berria eta haiek bategi zera bota zidan: *ondo egin duk hona etortzearekin, gu ez gaituk eta hara (elizara) joango*. Egun horretan bertan hartu nuen soziedadeko partaide izateko erabakia. Izan ere, elizara gutxitan edo inoiz ez zirenei joaten, ondo iruditzen zitzaieen parrokia beren artean azaltzea.

Geroztik, Elkarteak topagune egokia bihurtu da niretzat; hor aurkitu ditut sinisdun, sisisnigabe, ateo... Erliioarekin kezkatuak, axolagabeak, konserbadoreak... Botikan bezala, denetik. Egia, baita ere, ardoak edo txakolinak lagunduta ("in vino veritas", esaten zuten erromanoei), kezka erlijiozoz errazago mintzatzen garel.

Kritika foroa ere bada. Hantxartzerik egin badut hitzaldian, kantatzean, beren gustokoa ez den ideien bategian... ez didate bat bera ere barkatzen, mahai inguruan botatzen didate. Hori bai, edukazio osoz; erdi txantxetan, erdi serio, baina ondo ulertzeko moduan.

Atsedean leku aparta dela esango nuke azkenik. Elizkizuna amaitu ondoren elizkizunaren katedrala bihurtzen da gure soziedadea; lehia bizian jarduten dute Ramon, Joanito eta besteek, hamaiketako hobeak nork prestatu.



ZUBIETA

Izasun Zubiria



Inauterietarako prestakuntza

Konturatu baino lehen, inauterietan, atea kox-kox jo dute, gure buruan oraindik gabonak ahaztu gabe dardenean. "Kimua Berriak" taldeak ere Zubietako euskal jaietan eta gabonetan hainbat ekintza burutu ondoren, inauterietan herri mailan zerbait antolatzeko asmoa badu, eta horretarako auzotar guztiei deia hor doakie.

Zubietan zehar desfile antzeko bat egiteko asmoa dugu, orain arte egin ditugun antzezlanak gogoratu eta beharrezkoa bada antzerki txiki bat ere prestatu genezake, guztia hain gurea den Zubieta alaitzeko. Horixe da

gure asmoa, baina egitasmo hau egi bihurtu edo ez zure esku dago.

Zuetako norbaitek parte hartu nahi balu, otsailaren 15ean, igandean, Zubietako eskola txikietan bilduko gara arratsaldeko laurak aldera. Edozein adineko pertsona izan da ere, gure artean ongietorria izango zara, guztiak onartzen baititugu Zubietako "Kimua Berriak" taldean.



Animo! ez dezala inork esan zubietarrok ez dugula umorerik, ea denon artean auzoan talde handi eta sendoa bat osatzen dugun.

H erorrek esan



Oskar Uribe Navarro

Kalezar

Inauteri gehienetan mozorrotu naiz, eta aurten ere bai, hala ere zertaz ez dizuet esango. Iaz neskaz mozorrtu nintzen. Zergatik? Grazia gehiago emateko, agian.



Gaizka Lizartza Etxeberria

Etxealdia

Txiki-txikitatik mozorrotu izan naiz inauterietan. Mozorrotzea sorpresa izaten da eta horregatik ez dizuet esango zertaz mozorrotuko naizen. Hori bai, mutilak mutilez eta neskak neskez mozorrotu behar dute.



Haritz Jauregi Agirre

Kaleberri

Betidanik mozorrotu izan naiz, eta aurten ere ez dut huts egingo. Gizonezkoa emakumezkoa janztean grazi haundia ematen duelako izango da, ez dakit.



Ainara Arnaiz Iburguren

Atxegalde

Ni txikitatik mozorrotzen naiz, ikastolara joaten nintzenetik. Aurten ere asma badut, baina ez dizuet esango zertaz. Mutilak neskaz zergatik mozorrotzen diren ez dakit, agian horrela gustora sentitzen dira.



Ana Arruti Zubiria

Kaleberri

Normalean mozorrotzen naiz, azken laupabost urtetan inauterietan mozorrotu naiz eta aurten ere asma badut. Nire ustez, inauterietako sexu aldaketa, bakoitzaren bestearen postuan jartzeko egingo du jendeak, aldatzeko.



Vicente Leronés Mayordomo

Kaleberri


Behin edo behin mozorrotu izan nahiz baina inauterietan ez dut mozorrotzeko ohiturarik. Inauterietan ikusten denez, agian bakoitzaren sexuarekin ados ez dagoen jende asko dago gizarte honetan.



Koro Azkue Mendizabal

Kalezar

Inoiz ez naiz mozorrotu, txikitant ere ez eta aurten ere alaba mozorrotuko dut baina ni ez. Emakumeak gizonezko mozorrotzea edo alderantziz, urtean behin zerbait desberdina egiteko aukera dagoelako izango da.



Maria Taboada Antelo

Olarriondo

Aurten ez naiz mozorrotuko. Noiz edo behin zerbait jantzi izan dut baina aurten ez dut uste. Besteek ez ezagutzeko mutilak neskaz jantzen dira. Batzuei nabaritzen zaie mutilak direla, baina beste batzuei... Herrian badago urtero emakumeaz oso ondo jantzen den bat.

PORTUARRRONE



IMURGI BORDA

BAINUKO ALTZARIAK



Kalderuak 2220
Tf. 36 46 17
Fax: 36 52 09

MAHUKA



GAZTE DENDA

%50eko deskontua

=txeberria ka 22.3 Tf. 36 06

PATRI

JATE TXIA

Eguneko bazkariak eta afariak

Magusia 6
Tf. 36 27 25

20 170 Usurbil
(Gipuzkoa)

18 logelako ostatua Atxega jauregian

Hirugarrenean bai! Atxega jauregia errentan hartzeko hirugarren lehiaketak bere fruitua eman du. Atxega jauregian hotel antzeko bat jarriko dute. Gaizki pentsatzen hasi zaretenak kendu pentsamendu hori burutik, jauregi honetan horrelako zerbait jarzea ezinezkoa baita.

Inguruan dauden industrialdeak kontuan hartuta, Atxega jauregian, langile, merkataritza ordezkari eta horrelakoen zat mokaduak, bazkariak, afariak... eman eta gaua pasa ahal izateko lekua jarzea da elkarte honen helburua. Eraikinaren izaera historikoa errespetatzea ezinbesteko baldintza da bihurtu da eta jauregiaren elementu apaingarri guztiak errespetatu beharko dituzte zaharberritze lanak egiterakoan.



Atxega jauregiko behe-solairuak, kafetegia eta 80 pertsonentzako jangela izango ditu; sotoan sukaldea egingo luke. Lehen solairuan, berriz, harrera eta hamar logela jarriko dituzte, bakoitza leiho banarekin. Teilatupeko solairuan azkenik, zortzi logela eraikiko dituzte, bainu gela eta guzti. Guztira 18 logela izango ditu, beraz, Atxega

jauregiak. Industriagunetik gertueneko aldetik ezinduentzako sarrera egingo litzateke eta, beste aldetik, lorategiko pasealekuarekin bat egingo duen espaloia.

Orain, proiektua aurkezteko hiru hilabeteko epea dute, eta tramite guztiak burutu ondoren, urtebete obrak bukatzeko.

1998. URTERAKO TAXI ZERBITZUEN PREZIO BERRIAK

Udalak 1998. urterako Gipuzkoako Taxien Elkarteak proposatutako taxi prezio berriak onartu ditu. Bandera jeitsiera 325 pezeta kobratuko dute. Egindako kilometro bakoitzeko 110 pezeta kobratuko dira egunez eta 175 pzt. gau (23.00etatik 7.00etara) nahiz jai egunetan. Itxarondako ordua, berriz, 2.100 pzt. kobratuko dute egunez eta 3.300 gauez. Mailetak eramatea kilometroko 75 pzt. kostako da.

UR EDANGARRIA ERAMATEKO PROIEKTUAK


Nekazaritza batzordeak, herriko nekazal premiak eta proiektuak aztertu ondoren, herriko baserri guztietara ur-edangarria eramateko proiektuari lehentasuna eman dio. Proiektu hau faseka burutzeko asmoa dago. 1998. urtean **Maskulaitz, Arpidegieta, Gorostidi eta Tellegindegi** baserrietara ura eramateko asmoa dago eta **Saria haundi** baserrian, berriz, ur sarea osatu nahi da.

GURE PAKEA ZAHAR EGOITZAREN ARDURA

Eguzkitzaldean dagoen Gure Pakea elkarteko tabernaren ustiapen ihardueraren ardura hartu nahi duten guztiei deialdia egiten die udalak. Azken bost urteetan bere ustiapena **M^o Teresa Alkortaren** esku egon bada ere honek ez jarraitzeko asmoa agertu du. Beraz, udalak, tabernaren esplotazioa lehiaketara ateratzea erabaki du. Lan hau hartzeko asmoa duenak udalerekin eska beza informazioa.



MARKEL OIAIZOLA
KASBURI ALE ENITA 76 2200005



GENERALI
Aseguru Kompania

Moto guztietako Asegurorik
kurazteko iturriko

Arkume enategia

Arkumea partidan

Flamantizako parkea



Aparkalekua

Baraztiak partidan

Btxeko berezitasunak

Ospakizunak eta despediak



Pintxo aukera bikaina
Gosari bereziak

Troia: 12 uholde 78 urtetan

Troia aldean ez da ahaztu oraindik ekainaren 1eko uholdeek eragindako txikizioa. Familia batek baino gehiagok, uraren hatzaparretatik ihes egin nahian baserri edo etxearen teilatura igo behar izan zuen. Sei familiek beren betiko etxeak utzi eta Troiatik alde egin behar izan zuten. Azken mende honetan uholde bat baino gehiago jasan behar izan dute Troiako bizilagunek, eta hau ez errepikatze konponbideren bat aurkitzea da beren helburua.

Orain arte jaso duten laguntza bakarra udalarena izan da. Ekainak 1eko uholdeetan Troian kaltetuak izan ziren sei familiei ez Diputazioak, ez Eusko Jaurlaritzak ezta Madrilgo gobernuak ere, oraindik ez die pezeta bat bera ere eman, eta ez dute dirulaguntza jasotzeko esperantza haundirik. Hala ere, uholdeen arazoa konpontzeko, ahal den guztia egiteko prest daude.

Bi motatako uholdeak sufritzen dituzte

Izan ere, uholdeen arazoa ez da oraingoa. 1920az geroztik 12 uholde izan dira Troian. **Julian Zarautzen** esanetan bi eratako uholdeak jasan behar izaten dituzte. *"Batuetan Oria ibaiak gainezka egiten du. Ibaia hazita datorrenean bere maila asko igo eta errepideko tubotik gora ura sartzen da Troiara. Bestea okerragoa da. Menditik etortzen diren urak Zaldierrekan biltzean, ur korrante izugarria etortzen da beherantz. Oria ere maila altuan egoten denez ur guztia Troian gelditzen da".* Azken hau gertatu zen ekainaren 1eko uholdeetan. Troia

urez bete zen eta bertako bizilagun batzuek beren etxeak utzi eta teilatutik irten behar izan zuten.

Lehen esan bezala, arazoa ez da oraingoa. 1950. urtean **Francisco Zarauz Arruti, Julian Zarautzen** aitona eta Troia baserriko jabeak arazo bera aurkeztu zuen idatziz. Dokumentu horretan **Francisco Zarauzek** zera dio: *"1914. urte arte Troia aldameneko erre-*

1950. urteko udaleko sarrera batean arazo berdina planteatzen zuen Francisco Zarauz Troiako jabeak

karen, Zaldierrekaren ur-emaia hazten zenean Troian ez zen uholderik izaten. Erreka nahiz ibaia gehien haztean ere urak beren bidetik joaten ziren, soilik inguruko lur batzuk harrapatuaz". 1914an Donostiatik Bilborako errepidea eta trenbidea egin zituzten eta, honekin batera, Zaldierrekaren ibairatzeko

obra. *"Errekaren bide naturala ez zen errespetatu. Arretxe baserriaren lurra expropiatu eta hortik egin zen ubide berria".*

1950. urteko idatzi honetan **Francisco Zarauzek** uholdeen erru guztia eraikuntza lan hauek dutela dio. *"Obra hauen ondotik uholdeak izan dira Troian behin eta berriz. Zaldierreka hazten denean eta Oria hazita datorrenean uholdeak izaten dira Troian, ubide berritik, ura ez baita lehengo modura pasatzen. Honela, bidez goitik, Troian, uholdeak gertatzen dira".*

Troia auzoko uholdeetan kaltetuak izan ziren bizilagunak bat datoz idatzi horretan esaten denarekin. *"Troia zuloan dago eta goiko eta beheko urek tartean harrapatzen dute, batez ere erreka-aren ibairatzea egokia ez delako. 78 urte pasa arren arazo berdinarekin jarraitzen dugu. Bitarte horretan, gure segurtasunerakodute ezer egin".* 1950. urtean Troian zegoen arazo berdinarekin jarraitzen dute 1998an.

Ekainaren 1eko uholdeen ondoren mugitzen hasi ziren;



zerbait egin beharra zegoen. Udalera jo zuten lehenengo eta hau laguntzeko prest agertu zen. Bideetako injineru bati Zaldierrekak Troian sortutako uholdeen txostena egiteko eskatu eta ondorioen zain gelditu ziren. Ondorioek arrazoa ematen zien.

Erreka ibaiertzeko pasabidea estuegia

Txostenaren arabera Zaldierreka ibairatzerakoan 45 metroko zati estalia dago, tunel antzekoa. Oria ibaia neurritz kanpo hazita datorrenean, Oriako ura ubide horretatik Troiara sartu eta Zaldierrekako urak Troian geldituko lirarteke, uholdeak sortaraziz. Injineruaren ustez, Zaldierreka errepidearen alde batetik Oriara pasatzeko lur azpiko ubidea estuegia da. Oria ibaiaren eraginez bakarrik, honek gainezka egitean Troia baserriraino iritsi daitezke urak. Ur-emari haundietan, berriz, uholdeak sortzeko arriskua areagotu egiten da, goitik eta behetik ura etortzean tunel horretan ura pilatu egiten baita.

1950. urteko dokumentua, injineruaren txostena eta udalaren idatzia Foru Aldundiko errepideetako arduradunari, Eusko Jaurlaritzako Obra Hidraulikoetako sailari eta Eusko Treni bidali eta erantzunaren zain gelditu ziren.

Foru Aldundiko errepideetako zuzendari nagusiak beraien ezin zutela ezer egin erantzun zien. **Antton Jaime Ugarteren** arabera, "N-634 errepidea aspaldi egin zen eta garai hartako legediak agintzen zituen tramiteak betez egin ere. Beraz, orain aldaketak eta erantzunkizuna Foru Aldundiari eskatzea ez da bidezkoa". Eusko Jaurlaritzaren Obra

Troia baserrian izan diren uholdeak. 1920-1998

1920: ura 0,50 metrora iritsi zen sukaldean 4.000 pezetako kalteak

1933: ura goiko logeletara iritsi zen, 5 metro. 17 behi eta 80 oilo hil ziren

1940: ikuiluan 2 metrotara iritsi zen ura

1942: urak ikuiluko tresnak eraman zituen

1949: sukaldean 3 metrotara iritsi zen ura traste guztiak eramanaz

1953: Zaldierrekak gainezka egin eta ura 3 metro ingurura iritsi zen

1965: Oria ibaia igo eta 0.6 metroko ura

1969: metro bat inguru sukaldean Oria ibaia igo ondoren

1975: Oria ibaia igo ondoren metro bat sukaldean

1985: 1,75 metrora iritsi zen Oria ibaiak gainezka egin ondoren

1992: Zaldierrekak gainezka. 0,6 metro

1997: Zaldierrekak gainezka egin ondoren ganbararaino iritsi zen ura. 7 metro.

Hidrauliko sailak ez zuen erantzunik eman, baina joan den otsailaren 12an bildu ziren bertako arduradunekin eta konponbide bat aurkitu nahian, Troiako arazoa aztertuko zutela hitz eman zuten.

Troiako bizilagunek ez dute gauzak konponduko direnaren esperantza haundiegirik. **Julian Zarautzek** dioenez,

Eusko Jaurlaritzako
Obra Hidraulikoetako
sailak Troiako arazoa
aztertuko dutela
agindu du

poliki-poliki joan behar dute aurrera. "Nik badakit gauzak ezin direla segituan konpondu. Gure egoera berdinean dauden asko egongo da Euskal Herrian eta guztien nahiak berehala asetzea ezinezkoa da. Hala ere, entzun gaituztenean gustora". Lehen

pausoa eman dute, eta orain piska batean itxoin beharrean daude.

Errepide azpiko errekaibidea, tunela zabaltzea litzateke konponbideetako bat. Injineruaren azterketen arabera, Zaldierrekak eragindako uholdeak konpontzeko irtenbiderik egokiena litzateke, baina lan horiek egitearen kostua izugarria izango litzateke; 80-100 milioi ingurukoa eta tunela zabaltzeak, Oria ibaiak sortutako uholdeen arriskua areagotzea ekarriko luke.

Ekaineko uholdeen ondorioz, oraindik ez dute pezetarik ikusi. "Kalteak aseguruak ordainduko dituela esaten digute, lasai egoteko. Hala ere, guk zerbait gehiago nahi dugu. Troian arrisku horrekin bizitzea ezinezkoa da, euria egitean beti gaude beldurrak jota eta lo egin ezinik. Uholdeak galeraztea ezinezkoa bada alde egin beharko dugu, baina horren truke zerbait eman diezagutela".

1995-1996an 2.356 liburu argitaratu ziren

Joan Mari Torrealdaik "XX. mendeko euskal liburu-
en katalogoa III 1995-1996" lana aurkeztu zuen jo-
an den otsailaren 2an, mende honetako liburugintza-
ren nondik norakoak jasotzen dituen lanaren hiruga-
rren zatia hain zuzen ere. Liburu honen arabera, men-
de honetako azken hamarkadan, urteko mila liburu
atera dira Euskal Herrian. 1995 eta 1996 urteetan 2356
liburu argitaratu ziren, 1900. urtetik 1973. urtera argita-
ratu zen liburu kopuru bera. Torrealdai, 1977an hasi
zen euskal liburugintzaren azterketa hauek egiten.
Katalogoaren hirugarren zatia aurkeztu ondoren,
hemendik bi urtera atera nahi du laugarren liburua
eta mendea bukatzean bosgarrena eta azkena.



Atxilotu ondoren aske utzi zuten Xabier Miguel Ezkerra



Frantziako poliziak **Xabier Miguel Ezkerra** atxilotu zuen
joan den otsailaren 3an iparraldeko Arnegui herrian.
11.45etan bidean jarritako kontrol batean gelditu
ondoren Hendaiako komisaldegira eraman zuten.
Bertan poliziaren galdeketa jasan ondoren, atxilotu eta
hiru ordura aske utzi zuten. Xabier orain dela 21 urte
pasa zen mugaz bestaldera. Errefuxiatuta egon ondo-
ren 1986. urtean atxilotu eta bost urte egin zituen gar-
tzela desberdinetan. 1991an gartzelatik irten eta Lillera
konfinatu zuten. 1995. urteko maiatzean, ordea, konfi-
natuta egoteko agindua hautsi eta Baionara etorri zen
beste konfinatu batzuekin batera.

Aldaketak Aritzetako autobidea egiterakoan

A-8 autopista eta N-634 errepidea lotuko dituen auto-
bidea egiteko lanak aurrera doaz. Irubide aldea
zeharo aldatu dute eta autobide berriaren oinarriak garbi
ikusiko dituzu bertatik pasatzerakoan. Azken asteetan,
N-634 errepidera pasa dira lanak eta Irubiden karril bat
itxita egon ohi da. Bestalde, joan den otsailaren 3an dipu-
tatuen kontseiluak egindako bileran, Aritzetako loturatik
behera autobideak norabide bakoitzean hiru karril izatea
erabaki zuen. Hasiera batean, proiektuan bi karril aurrei-
kusten ziren, baina segurtasuna areagotu nahian, hiru
karril izango dira N-634tik autobidera pasatzerakoan.



kafe berezia



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

**HILDAKOA N-634AN
KALEZAR PAREAN**

Joan den otsailaren 1ean txirindulari bat hil zen N-634 errepidean Kalezar parean. Goizeko 9.25ak aldera, 58 urteko **Guillermo H. S** ginekologoa N-634 errepidetik Donostia aldera zihoan txirindaz, Kalezar parean bularrean mina sentitu eta bertan erori zen momentuan. Dirudienez, miokardio atake bat jasan zuen eta DYAKo kideak istripua izan eta denbora gutxira bere onera ekartzen saiatu baziren ere txirindularia bertan hil zen.



Santa Ageda, Ageda, bihar da Santa Ageda... makilak hartu eta kantu-kantari ibili ziren Udarregi ikastolako haurrak joan den otsailaren 4an. Eguraldi tristea bazen ere, Santa Ageda bezperako abestiekin alaitu nahi izan zituzten herriko kaleak. Bi taldetan banatuta, garai bateko ohitura zaharra jarraituz, makilak astindu eta kopla zaharrak kantatzeko aukera izan zuten ikastolako haurrek. Agedak entzun zituen, euria ere gelditu egin zen eta!

**USURBILGO HERRIA
EPAITUA**

Datorren otsailaren 26an **Joxe Antonio Alfuna** alkatea epaituko dute udalak intsumisioaren bidez ejerzitoarekin ez kolaboratzeko hartu zuen erabakiagatik. 1994. urtean udalak ejerzitoarekin kolaboratu ez zuela eta, alkatea epaituko dute Donostiako auzitegian. Fiskalak urtebeteko inhabilitazioa eta 200.00 pezetako isuna eskatu du zigortzat. Usurbilgo intsumitu taldeak otsailaren 26an 11.00etan epaitegi aurrean egingo den kontzentrazioa deitzen zaituzte



Joan den otsailaren 6an, goizaldera kotxe bat erre zen Etxealdiako aparkalekuan. Dirudienez, goizeko 2.30ak aldera, norbaitek su eman zion J.M.L-ren Nissan Patrolari. Suhiltzaileak eta Ertzainak azkar bertaratu arren, erabat kixkalita gelditu zen. Dei anonimo batek, ertzain batek erabiltzen zuen kotxearen erreketara bere gain hartu zuen, euskal preso politikoekin elkartasuna eta Euskal Herriarentzat askatasuna aldarrikatuz.



Udala eta Aginagako elizako junta adostasun batera iritsi dira Aginagako eskola txikiaren leku aldaketari dagokionean. Elizako lokaletako lehen solairuan dagoen gela bat eta ondoan dagoenaren zati bat izan daitezke eskola txikiaren egoitza berria. Egunen batean lokala haunditu beharko balitz juntak ez luke oztoporik jarriko. Junta eta udala akordio batera iritsi diren arren, hezkuntza sailaren oneritziaren zain daude orain.



Bideo eta Argazki

USUB

936 14 87

ofizial

Hagindak ondo dabilizanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

*Kale Nagusia, 21 C4
Tlf 37 08 78*

20170

USURBIL

Dardotako munduko txapelduna Usurbilen

Usurbildarrek ezin izan zio-
ten Pedro Garcia,
"Chanpi", munduko dardo
txapeldunari aurre egin. Behin
eta berriz saiatu ziren arren
madrildarrak ez zien aukerarik
eman.

Pedro Garcia madrildar txa-
pelduna Usurbilen izan zen
joan den otsailaren 10ean.
Irrati tabernan dardo erakus-
taldia egin zuen han bildu zire-
nen gozamenerako. Usurbildar
dardo botatzaile onenak
behin eta berriz saiatu ziren
honi irabazten baina ez zuten
beren helburua lortu. Aurrez
sagardotegian izan baziren
ere, madrildarrak erraztasun
osoz betetzen zuen bere lana.

Izan ere "Champi" ren ibilbi-
dea bikaina da. Bi aldiz izan



da binaka munduko txapel-
dun, Europako bost txapelke-
ta eskuratu ditu, bakarka eta
binaka eta Espainiako beste
bost txapelketetan lehen pos-
tuan gelditzea lortu du, bai
bakarka eta bai taldeka.

Usurbildarrek ezin zuten sinis-
tu ikusten ari zirena. Begia
nora han jartzen zituen dardo-
ak. Ikasteko asko dute, beraz,
oraindik, madrildarra bezala
egunean sei ordu entrenatzen
hasi beharko dute.

Haimar Zubeldia Mallorkako itzulian

Haimar Zubeldia profesio-
nala da ja. Joan den
otsailaren 9an hasi zen
Mallorkako itzulian egin zuen
bere debuta Euskadi-Euskaltel
taldearekin. 20 urte besterik ez
eta Olano, Zulle eta Ulrich
moduko txirrindulariekin
lehiatu dugu urdaiagarra.

Profesionalitateko lehen lais-
terketa honetan ez zen batere
gaizki ibili. Otsailaren 10eko
Mallorkako itzuliko bigarren
etapan, adibidez, 19. postua
eskuratu zuen. Zenbait txirrind-
ularik alde egin zuten arren

Haimar Zubeldiak talde nagu-
siarekin sartzeko ez zuen inolako
arazorik izan eta 19. pos-
tuan iritsi zen helmugara.

Bera da estatu espainiarre-
an profesionalitateara igo den
txirrindularirik gazteena eta
mundu mailan ere gazteene-
takoa da Haimar. Piskanaka-
piskanaka profesionalitateko
ibiliari neurria hartu nahi dio.
Horregatik, aurten ez du ziklo
krosik egin. Laisterketa luze-
tan ez du parte hartuko eta
konpetizio egunak ere gutxi
izango ditu.



SERIGRAFIA
T A N P O G R A F I A

LOSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2º Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa
IRA GARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

ZUMETA

JATE TXEA

Patxandia, Tel. 36 27 13

ZUMETA MENIUA
(Guztiz 2 aguraz)

Itxeko itxeko itxeko...
Itxeko itxeko itxeko...
Itxeko itxeko itxeko...
Itxeko itxeko itxeko...
Itxeko itxeko itxeko...
Itxeko itxeko itxeko...

BITXITEGI

ARREGI

ORDUKARI

2008ko otsailaren 13

2008ko otsailaren 13

2008ko otsailaren 13

OTSAILAK 13 ostirala

- **Areto futboleko partidua** (m): **Xabier Edaritegia - Gurrutxaga** Oiaro kiroldegian, 20.45etan.

OTSAILAK 14 larunbata

- Goizeko 10.30etan **Arruti-Iribar** bikote usurbildarrak Intxaurrendoko txapelketako kadeteen mailako **pelota partidua** jokatuko dute bertako frontoian.
- Añorgako frontoian **Izagirre-Castresana** bikote usurbildarrak **Gipuzkoako pelota liga** jokatuko dute arratsaldeko 16.30etan.
- Bigarren nazionaleko **eskubalo**i partidua (2N): **Ereintza- Usurbil K.E**
- **Eskubalo**i partidua kadete mailan (m):**Usurbil K.E- Corazonistas**. Oiaro kiroldegian arratsaldeko 16.30etan
- **Eskubalo**i partidua jubenil mailan (m): **Usurbil K.E- Corazonistas**. Oiaro kiroldegian arratsaldeko 18.00etan
- **Futbol partidua** jubenil mailan(m): **Orioko - Usurbil F.T**. Antilla futbol zelaian
- **Eskolarteko pelota txapelketako partidua** herriko frontoian alebin eta infantil mailak. 15.00etan.

OTSAILAK 15 igandea

- **Saskibalo**iko partidua (m): **Usurbil S.T - Uztapide**. Oiaro kiroldegian 10.00etan hasita.

OTSAILAK 20 ostirala

- **Areto futboleko partidua** (m): **Aloña Mendi - Xabier Edar**. Oñatiko Zubikoa kiroldegian. 22.15etan.

OTSAILAK 21 larunbata

- Bigarren nazionaleko **eskubalo**i partidua (2N): **Usurbil K.E- Pulpo**. Oiaro kiroldegian arratsaldeko 18.00etan
- **Futbol partidua** errejional mailan(n): **Usurbil F.T - Zumaiako**. Harane futbol zelaian
- **Eskubalo**i partidua jubenil mailan (m):**Pulpo- Usurbil K.E**. Zumaiako kiroldegian
- **Saskibalo**iko partidua (m): **Kevian Sport - Usurbil S.T - Karmelo Baldan** arratsaldeko 20.15etan.

OTSAILAK 22 igandea

- **Futbol partidua** jubenil mailan(m): **Usurbil F.T - Zarautz**. Harane futbol zelaian
- Gipuzkoako ligako pelota partidua Oiarozunen. **Arruti-Olasagasti** usurbildarren partidua goizean

EMAITZAK

FUTBOLA

Urtarrilak31-Otsailak 1

A. Ondarroa **3** - Usurbil F.T **0** (2.R)
Usurbil F.T **0** - Elgoibar **1** (ju.)
Usurbil F.T **3** - Euskalduna **0** (ka.)
Usurbil F.T **0** - Zumaiako **1** (n.)

Otsailak 7-8

Usurbil F.T. **3** - Loyolako **1** (2.R.)
Usurbil F.T **1** - Mondragon **5** (ju.)
Danena **2** - Usurbil F.T **3** (ka.)
Antoniano **1** - Usurbil F.T **0** (n.)

ESKUBALOA

Urtarrilak31-Otsailak 1

Escolapios **25** - Usurbil **24** (2.N.)
Usurbil **17** - Urdaneta **38** (ju.m)
Usurbil **27** - Urdaneta **26** (ka.m)
Hernani **15** - Usurbil **15** (ju.n)

Otsailak 7-8

Usurbil **21** - El Pilar **20** (2.N.)
Askartza **31** - Usurbil **25** (ju.m)
Askartza **21** - Usurbil **17** (ka.m)

SASKIBALOA

Usurbil S.T **45** - Askatuak **112**
Beti Gazte **70** - Usurbil S.T **23**

ARETO FUTBOLA

Hosfrinor **3** - Xabier Edar. **3**
Gubi **1** - Xabier Edar. **1**

PELOTA

Gipuzkoako liga
Arruti-Olasagasti (Usurbil) **12**
Aranburu-Ormaetxea (Zizurkil) **22**
Izagirre-Castresana (Usurbil) **7**
Orkaiztegi- Altuna (Ikaskirola) **22**

Laburdurak


R.: errejionalak ka.: kadeteak
N.: nazionala n.: neskak
ju.: jubenila m.: mutilak



ARRAINDEGIA
PELLO

Antxeta, Kaltetx
11 36 2 624
USURBIL

TXURRUT



EDARITEGIA

USURBIL
MUSIKA
ESTADIA

**TABERNA
JAITEIXBA**




ANTXETA

EGUZKITZA 4
TUBLA 37 03/4
20170 USURBIL



Xanti Illarramendi
Matxain



34 urte
San Ignaziokoa
Artisaua
Musean egi-
tea, bidaiatzea
eta perretxikoak
biltzea gustatzen
zaio

Kultura herrikoia ren gorabeherak

Lehen munduko eta batez ere Europako gizartea globalizazio prozesuan dagoen garai honetan, Euskal kultura herrikoia ren aldarrikapena egin nahi dut.

Herri bat besteetatik bereizten duen ezaugarria ez da industri sare garrantzitsua, teknologi aurreratuena, edota ekonomi aberatsa izaten. Nahiz eta hauek oso garrantzitsuak izan, gizarte bat, besteengandik bereiziko bada, herri horretako kulturak beste herriekiko desberdina izan beharko du.

Lurralde batean bizi den giza taldeak, beraien bizi beharretara egokitzen dituzten irtenbide desberdinez osatuta, sortzen da herri kultura.

Hizkuntza, ohiturak, mitologia, arkitektura, musika, jantziak, dantzak, tresna, sinbolo, ontzi eta objektu desberdinak... Koba zuloetan hasi eta gaur arte landu eta aberastu diren atal hauek, herri bati nortasuna ematen diote eta gu euskaldun izateaz harro bagaude, ezaugarri hauek gaur eguneraino bizirik iristez arduratu garelako da.

Ea behingoz konturatzegaren Euskal kultura herrikoi oso aberats baten jabe garela. Noski gaur egungo bizitzan kultura tradizionalaren barruan gauza

pila batek ez du praktikasunik. Ez dut esaten egunero esnea kaiku batean harriekin egosi behar denik edo ditugun haltzari eta arropa guztiek laburua eraman behar dutenik. Bainan bai, mendeetan zehar osatuz doan kultura hori, ezin daitekeela bat batean museo-etara bidali. XXI. mendean bizirik eta berezia nahi bada, gutxienez ezagutu eta ahal den neurrian erabili behar dugu.

Herri guztietako kultura herrikoiak konplexuak izaten dira. Gizartea eboluzionatzen doan heinean, lehen izendatu ditudan atal guztiak aldatzen doaz, batzuk desagertu eta berriak sortuz, hori beti gertatzen da. Bainan orain arte kultura bakoitzak berrikuntza hori irentsi eta moldatzeko denbora izaten zuen. Gaur egun, ordea, egunero ditugu kanpoko gauza berriak eta herri kultura horrek ez du hori irentsi eta moldatzeko denborarik, eta horre-

la gertatzen da hasieran aipatutudan globalizazio prozesua.

Honekin ez dut atzerrikoa txarra denik edo erabili behar ez dugunik esan nahi, biak osagarriak izan daitezke. Bainan, etor-

kizunean hainbat urtetan osatuz joan den Euskal Herriko kulturaren bidea ez dadila hautsi.



Inauteriak 98: Musika festa!

Musika, musikoak, instrumentuak, pentagramak... hortxe duzu aurtengo inauterietarako gaia. Ijituak, hippiak, zirkoa eta aurten musika. Izan ere, seigarren urtez jarraian inauteri larunbatz gozatzeko aukera izango dugu Usurbilen. Otsailaren 21a, musika festa!

Inoiz baino beranduago, baina aurten ere hemen ditugu inauteriak. Urte osoan, gure barnean jasota, gorderik, eramaten ditugun desio ezkuak azalertzeko aukera paregabea ematen duen mozorro festa hain zuzen ere. Gizonezkoak emakumezkoen jantziekin, emakumezkoak gizonezkoenekin, umeak helduak balira bezala, helduak umeak izan nahian... inauteriak, jaun andreak.

Ostiralean, otsailak 20, Udarregi ikastolako haurren txanda. Goizean, haurrek



beren dantzarako trebezia erakutsiko dute herriko frontoian. Azken urteetan, **Jaione Escudero** eta **"Mendiren"** zuzendaritzapean, ikuskizun polita eskaini izan ohi dituzte Udarregi ikastolako haurrek. Aurten ere ez dute huts egingo eta beren mozorro eta dantzak ikusi ahal izango ditugu. Arratsaldean, goi ziklokoen

txanda. Skech, antzerki, dantza saio ezberdinak eta ondoren... hainbeste denboran itxarondako dantzaldia.

Larunbatean, otsailak 21, musikaz beteko dira herriko kaleak. Horixe baita aurtengo gaia: musika. Musika handik musika hemendik, musikaz mozorrotuta esnatuko da Usurbil. Iazko zirkoaren ondoren opera, rock kontzertu, traviata eta pentagramazalek beteko da. Benetako musikariak ere izango dira gure artean, Drindots taldearen abestiak entzun eta dantzatzeko aukera ere izango baita.

Asteartean, otsailak 24, angularen ehorzketa. Aurtengo inauteriei amaiera emateko garaia iritsi da. Zumarte musika eskolakoek horrenbeste balio duen angula erreko dute, inauteri zaleen zoritxarrerako.

Josu Aranberri



BORDATXO
edariategia

PINTXO BEREZIAK
ETA AUKERA ZABALA

Amizeta, 2

Tel: 97 10 42



Igandetan ganba-ziri mundialak!

Eguzki: 100 bazkideko lagunartea

Eguzki, Olarriondoko soziedadea da. Orain Olarriondo auzoa den arren, bertakoek 42. poligonoa gogoan dute oraindik eta soziedade honen sorrera ere biziki lotua dago auzo honen bilakaerarekin. Kooperatiba batetik datorrela esan genezake. Bazkide gehienak, denak ez esatearren, Olarriondokoak dira eta kanpora bizitzera joandakoan ere bazkide izaten jarraitzen dute.

Soziedade honen sorrera ez da ohizkoa. Elkarte baten sorrera lagun talde baten ekimenarekin lotuta egon ohi da. Eguzkiren sorrerak, ordea, bestelakoa da. 42. poligonoko etxeak egin berriak, 1968-69an auzokideek kooperatiba antzekoa osatu zuten. Auzoaren behe aldeko etxe azpietako lokalak, 300 m² inguru, lurrez beteta zeudenean, kontratistak 30.000 pezeta-ren truke lur hura guztia kenduko zuela agindu zien.

Esan bai, baina bete ez. Agindutakoa haizeak eraman zuen. **Pepe Salazar**, bertako hasierako bazkideetako batek esandakoaren arabera, futbolarien moduan jokaldi polita egin zien hark; "Jokoz kanpo utzi gintuen. Lokal haiek beretzat

hartu eta saldu egin nahi izan zizkigun". Azkenean, 100 m² erosi zizkieten, hori bai merkeago, eta 1969an bertan soziedadea egitea erabaki zuten.

Orain dauden leku berean egon dira ordu ezkerotik. *"Hasieran udalarekin akordio batera iritsi eta lokalaren zati bat utzi genion haurtzaindegia egin zezaten. Leku hura sukalde da orain".* Nola jarri zioten gure izar nagusiaren izena? Salazarrek ez zekien zer erantzun. *"Izen hori zergatik jarri genion ez naiz gogoratzen. Agian eguzkiak asko jotzen zuelako izango zen, jakin ezazu".*

100 bazkideko muga

Eguzki soziedadeak badu berezitasun bat: bazkide kopurua. Bere sorreratik, 1969tik, bazkide kopuru bera dute, 100 bazkide. Hasieran 100 bazkideko muga jarri zuten eta 29 urte hauetan hutsik egin gabe

mantendu dute muga hori. *"Bertan sartu nahi duen jende asko dago baina guk ez dugu 100 bazkideko ohitura hori aldatuko".* Hala ere, 100 bazkide izan arren, titulu hori gabe ko 16 kide daude Eguzkin. Nahi izan ezker, bazkideen semeek sartzeko aukera baitute.

Emakumeak bai, emakumeak ez... eztabaida ugari izan dituztela ez du ukatzen Salazarrek. *"Beti daude eritzi desberdinak. Batzuk emakumeen alde, besteak ez... baina gaur egun gaitzuta daukagu eztabaida hori".* Lehengo eran, emakumeak ezin dute bazkide izan, baina bertara sartzeko askatasun osoa dute, hori bai, bazkide batekin sartuaz. Sukaldean ere, maiz ikus daitezke jaki goxoak prestatzen.

Futbolarekin lotuta egon izan da Eguzki Salazarren ustez. Nork ez ditu gogoratzen

Aizpurua autobusak eta Eguzkik herriko frontoian jokatzeko zituzten futbito partidu haiek? Olarriondoko eta kaxkokoaren arteko dema izugarria izaten zen. *"Gure mutilek fanta freskagarrien kamisetekin jokatzeko zuten, Haiek garaiak haiek...".*

Josu Aranberri




 J. Orbegozo



Kimia

MASAJE LERKUA

Kinok masajea eta masaje terapeutikoa

Xabier Carrizosa eta Goyo Martin



Eguraldiaren bertsoak

Eguraldi beroa
azken egunetan
zerua urdin dago
une gehienetan
txorrotxio ugari
bada bazterretan
udararen itzala
usaitzen da bertan
eguraldi gizona
al dabil txantxetan

Eguna joan eta
eguna etorri
ia jende gehiena
jada dago gorri
eguzkiaren izpi
ikustezen hori
azalean pausatu
zaigu guztiori
kantzeraren bidean
guztiok erori

Beroaren itzala
udararen hotsa
eguraldi honekin
badugu bai poza
orain dago aukera
ahal dena goza
udara omen dator
izugarri hotza
mendian elurra ta
kalean izotza

Erremedioen txokoa

GIBELA GARBITU, URDAILEKO EZINARENTZAT ETA DIGESTIORAKO

Behar duguna

*Menta freskua

*Pareta belarra

Litro bat ura jarriko dugu sutan. Ondoren, 100 bat gramo menta freskua (freskua izatea oso garrantzitsua da) eta beste 100 gramo pareta belarra botako ditugu bertara. Irakin baino lehenago, tapatu eta sutatik aterako dugu. Hartzeko garaian ezta eta limoi txorrotada bat bota diezaiokegu, bakoitzaren gustuaren arabera. Egunean zehar bi edo hiru aldiz hartuko dugu.

Lehiaketa



Argazki honetan daude-
anak zeintzuk dira? Sei
izen-abizen behar ditugu.

Asmatzaileen artean **Zumetan** bi lagunentzako afaria zozketatuko da

Santueneatik Urdaiara joateko 93 eskalera daude. **M^a Dolores Beldarrain Arto-lak** asmatu du erantzuna, eta **Sekañan** afaltzeko aukera izango du. Zorionak!



Jon Arruti Bordatxo tabernako saria jasotzen.


JUAN TXO

Burdindegia



LABE-TXIKI

Kale Nagusia, 2
Tlf 87 83 48
87 09 13
USURBIL




Bugatin jarriko da Donostiako fruta merkatua

Bugatin fruta merkatua izango da laister. Orain arte Atotxako fruta merkatua izan dena Bugatikoko fruta merkatua izatera pasako da sei hilabeteren buruan. Donostiako udalak inguru hortako lurren mugimendua onartu ondoren, segituan hasiko dira lanean, hau argitaratzeko hasi ez badira behintzat.

Zubietak fruta merkatua izango du. Hori da behintzat joan den otsailaren 10ean Donostiako udalak hartu zuen erabakia. Merkatu hau Bugatin jartzeko asmoa aspaldikoa izan arren, orain eraikuntza lanak egiten hasteko baimena eman du Donostiako udalak.

Bugatikoko fruta merkatuak 40.000 metro karratuko lurretan kokatuko da eta hoietatik 10.000 estalita egongo dira. Guztira 80.000 m² mugitukodituzte merkatua kokatuko den eraikuntza egiterakoan.



Merkatu honetan orain arte Atotxako merkatuan egon diren fruta saltzaileak jarriko dira. Donostiako udala fruta saltzaileekin akordio batera iritsi ondoren, Donostian 33 postu bazeuden, Zubietan 23 besterik ez dira jarriko. Hiru saltzailek negozio hau utzi egingo dute eta gainontzekoak lgaran kokatuko dira,

Gurelesaren eraikuntza zaharrenean.

Enrike Arana, Donostiako hiri-gintzako zinegotziak adierazi duenez, fruta saltzaileek eraikuntzaren gauzapenerako proiektua aurkeztu behar dute udalean, eraikuntza berria nolakoa izango den zehazten duen proiektua hain zuzen ere. Hala ere, merkatuan ibilgailu haundientzat aparkalekua egingo dutela aditzera eman zuen zinegotziak.

Merkatuarekin batera beste zerbitzu batzuk ere jarriko dira Bugatin. TIR kamioientzat geltoki bat eraikiko dute, gasolindegia eta guzti eta elikadurarekin zerikusia duen negozio bat ere jarri omen dezakete.

Bugatikoko fruta merkatua seizazpi hilabete barru amaituta egongo da.

Josu Aranberri



URTINEA
ILORATNEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tfno 86 22 55



Aritzeta 2 2 Usurbil

Merxean idank

A genda

OTSAILAK 13 ostirala

- **Senideak-en manifestazioa.** Arratsaldeko 20.00etan.
- **Euskal Herrian Euskarazek** herriko euskararen erabilpen egoezaz kezkatuta, **mahai inguru** antolatu du. Honez gain, aber-tzaletasuna, aberria eta euskara bat eginik jorratuko dituzte. Arratsaldeko 20.00etan Udarrégi zaharrean.
- Komite Internazionalistak antolatuta **Chiapasi buruzko bideo emanaldia** Udarrégi zaharrean. Arratsaldeko 20.00etan.
- **Euskal Herria Askatu!**ren manifestazioa. Arratsaldeko 20.00etan, errotondan.

OTSAILAK 20 ostirala

- **Senideak-en manifestazioa.** Arratsaldeko 20.00etan.
- Usurbilgo intsumitu taldeak, alkatearen epaiketa dela eta antolatu duen **manifestazio-kalejira**. Ilunabarreko 20.30etan, frontoian
- Udarrégi ikastolako ikasleen **inauteri jaialdia** herriko frontoian goizeko 11.00etan.
- Usurbilgo eskola txikien inauteri festa Aginagako zine aretoan. 14.30etan hasita, Euskaraokea.

OTSAILAK 21 larunbata

- **Inauteri festa.** Musika da aur-tengo gaia. Musika, musikari...mozorro kalejira eta festa. 23.00etan **Drindots taldearekin dantzaldia**.

OTSAILAK 23 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren manifestazioa. Arratsaldeko 20.00etan, errotondan.



Andatza K.K.E-ak **Baqueira Beret-era-eski irteera** antolatu du otsailak 28-mar-txoak 1erako. **13.000 pezeta** (bidaia, for-faita eta pentsio-erdia). Izen emateko epea otsailak 15a Txiriboga tabernan.

OTSAILAK 23 astelehena

- Udalak ejerzitoarekin kolabora-tu ez duelako alkatea epaitzen dute Donostiako auzitegian goi-zeko 11.00etan. Usurbilgo intsu-mitu taldeak deituta konzentra-zio epaitegi aurrean 10.30etan.

OHARRAK

- ✓ "Chiapas entre el dolor y la esperanza" **argazki erakusketa** zabalik dago Udarrégi zaharrean otsailak 15a arte 18.00etatik 21.00etara. Igandean, 11.00etatik 14.00etara.
- ✓ Otsailak 6an **Nokia markako telefono mugikorra** aurkitu zen Atxegalden. Galdu duenak udaltzainei eska diezaioke.
- ✓ **Kate bat galdu da.** Bertan, "Beñat, 1990-9-2" jartzen du. Inork aurkitu badu, deitu 37 26 75 telefonora.
- ✓ **Pisu bat hartu nahi nuke alokai-ruan.** Ahal bada, herriaren er-dialdean. Deitu telefono haue-tara eta Kristinarengatik galde-tu: 36 58 99 edo 989 89 80 95.

LANPOSTUAK

- ⇒ **Euskal Legebiltzarrak liburutegi, artxibo eta dokumentazioko lau laguntzaile behar ditu.** Eskaerak aurkezteko epea otsaila-ren 17an amaitzen da. Informa-zio gehiago Eusko Legebiltza-rrean edo GAOko 14. ean.

- ⇒ **Elgoibarko udalak administrati-laguntzaile bat** behar du. Eskaerak aurkezteko epea otsailaren 17an amaitzen da. Informazio gehiago Elgoibarko udaletxean edo GAOko 16. zenbakian.

- ⇒ **Bilboko udalak liburuzain eta artxibozain bat** behar du. Eskaerak aurkezteko epea otsailaren 17an amaitzen da. Informazio gehiago Bilboko udaletxean edo GAOko 18.ean.

- ⇒ **Bergarako udalak Drogomen-pekotasunaren prebentziarako erdi mailako behin-behineko teknikaria** behar du. Eskaerak aurkezteko epea otsailaren 20an amaitzen da. Informazio gehiago Bergarako udaletxean edo GAOko 19. zenbakian.

- ⇒ **Eibarko arteen udal patrona-tuak atezain lanpostua bete-tzeko pertsona bat** behar du. Eskaerak aurkezteko epea otsailaren 20an amaitzen da. Informazio gehiago Eibarko udaletxean edo GAOko 19. zenbakian.

- ⇒ **Bilboko udalak udaltzaingoko guardiarako 20 lanpostu bete-tzeko deialdia** egin du. Eskaerak aurkezteko epea otsailaren 20an amaitzen da. Informazio gehiago Bergarako udaletxean edo GAOko 20. zenbakian.

BAZKIDE TXARTTEA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrantea (20 digito): _____

H A M A B O S T E R K A R I A
noaua



Aginaga, Tlf: 37 26 91
Igande gauetan itxita.

URDAIRA



Aginaga, Tlf: 36 67 10
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan.

aginaga



Zubieta, Tlf: 36 20 49
Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera.

araeta



Txokoalde, Tlf: 37 16 49
Sagardofegi etxe-etxeko menua egunero.

illunbe



Zubieta, Tlf: 36 12 29
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita

iruin



Kalezar, Tlf: 36 22 28
Igande gauetan eta astelehen eguerdian itxita

saizar

